

1. **2019-2020** ikasturtean Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean **matrikula ofiziala** duten ikasleak aurkeztu ahal izango dira lehiaketara.
2. Lanak, originalak eta argitaragabeak, IHEOko edozein hizkuntza ofizialetan aurkeztu ahal izango dira: **alemana, euskara, frantsesa, ingelesa eta italiera**.
3. Lanek **testu** soila edo **testua eta irudiak** izan dezakete, eta irudiak egilearenak berarenak edo jatorrizko testuarenak izan daitezke. Dena den, testuen **literatur kalitatea** eta irudiekin (izanez gero) duen lotura sarituko dira beti. Beraz, lanak saritzeko ez da soilik irudien kalitatea kontuan hartuko.
4. Lanak *“Black-out poetry”* modalitatearen arabera egin beharko dira. Ez da onartuko ezabatze-teknika eta/edo irudi bitartez ia aldatu ez den eta jatorrizkoaren oso antzekoa den testurik.
5. Iturri hartutako testuaren luzera edozein dela ere, lanek **orrialde bateko luzera** izango dute gehienez.
6. Egile bakoitzak gehienez **hiru** lan aurkeztu ahal izango ditu aurten matrikulatuta dagoen **hizkuntza bakoitzean**.
7. Lanak **sinatu gabe** aurkeztuko dira dagokion departamentura zuzendutako **gutun-azal** baten barruan (modalitatearen hizkuntza baino ez da idatziko horretan). Gutun-azalaren barruan **beste** txikiago **bat**, itxita, sartuko da eta ikaslearen **izen osoa, telefonoa**, eta **matrikulatuta dagoen hizkuntza** eta maila adieraziko dira bertan. Erabilitako testuaren iturria (egunkariko artikulua, iragarkia, nobelaren zatia eta abar) eta obraren izenburua (izanez gero) gehituko dira.
8. Hurrengo **sariak** ezarri dira:
 - Hizkuntza bakoitzean 100 €**-ko lehen sari bat eta **75 €**-ko bigarren sari bat.
 - Kategoria absolutuan **250 €-ko lehen sari bat**.
9. Originalak **Atezaintzan** aurkeztuko dira zuzenean. Lanak aurkezteko epea 2020ko **otsailaren 27tik martxoaren 26ra** arte izango da.
10. Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko **departamentuetako irakasleek** osatuko dute **epaimahaia**, eta originalen kalitatea baloratuko dute eta hizkuntza bakoitzeko saritutako lanak aukeratuko dituzte. Ondoren, lehiaketaren **irabazle absolutua** aukeratuko da modalitate horretan **saritutako lanen artean**. Epaimahaikideen erabakia **apelaezina** izango da. Sariak eman gabe gera daitezke.
11. Nahi dutenek originalak berreskuratu ahal izango dituzte epaia eman ondoren.
12. Sari banaketa **apirilean** izango da, eta sarituei horren aurretik jakinaraziko zaie epaia.
13. Saritutako obrak *Vox Populi* aldizkariaren barneko koaderno batean **argitaratuko dira** eta Raibabelerako grabatuko dira. IHEOk **eskubidea** du obrak beste sustapen-kanal batzuetan **hedatzeko**, hala nola prentsan eta sare sozialetan.
14. Obrak lehiaketara aurkezteak parte-hartzaileek **oinarri guztiak onartzen** dituztela dakar. Oinarriak betetzen ez dituen edozein lan kanporatu ahalko da.